



Esne Beltza taldeak lehen diskoa atera du, 'Made in Euskal Herria'

«Dantzarako moduko diskoa» da taldekideen hitzetan, zuzeneko filosofiari fidel. Ekainean kontzertu ugari dituzte, besteak beste Ereñotzun.

ESNE Beltza taldeak bere lehen diskoa atera du, *Made in Euskal Herria*. Bederatzi musikarik eta bi teknikarik osatzen dute taldea, eta hauetariko asko hernaniarrak dira. Disko berria «freskoa» da, kontzertuetan bezalaxe festagiroa eta dantzarako giroa bilatzen duena. /7



Tibeteko mandalak nola egiten diren ikusteko aukera Biterin

TIBETI buruzko jardunaldien barruan, Tibeteko mandala erakusketa antolatu dute eta gaur izango da ikusteko azken eguna. Mandalak Tibeteko monjeek egiten dituzten marrazkiak dira, eta material ezberdinez egiten dituzte. Atzo, koloretako hondarra erabilia egin zituzten mandalak, eta gaur ere hala ariko dira. Larunbatean Tibeteko artisautza eta jakiak ikusi eta dastatzeko aukera izango da, Plaza Berrin. Asteartean Tibeteko errealitatea azaltzen duen dokumentala eman zuten Biterin. /2

❖ UDALA

Plenoa gaur

Plenoa izango da gaur, eta besteak beste eztabaidatuko da hilerriko araudia, elkarbizitza eta bide publikoaren erabilera eta garbiketa arautzen duen ordenantza, lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantza, etxebizitza tasatua arautzen duen udal ordenantza, arautegi organikoaren aldaketa eta AMMko kideen kontrako epaiketari buruz herritar batek aurkeztutako mozioa. Gaur arratsaldeko 18:00etan. Bestalde, asteartean Gobernu batzarra izan zen eta San Joanetako egitaraua eta aurrekontua onartu ziren. /2

❖ KULTUROLA

Bilera larunbatean

Hernanin euskal kultura sustatzeko gunea sortzeko bile-rak egiten ari dira. Larunbatean proiektua aurkeztuko dute eta interesa dutenak animatu dituzte joatera. Aurkezpena larunbatean, goizeko 11:00etan izango da, Sandiusterrin. II

GAUR KRONIKAN

Gobernu batzarreko
erabakiak /2

IKASLEEN TXOKOA/I-IV

Esne Beltza taldearen
disco berria /7

Igeriketa taldean
sartzeko aukera /8

Elizatxo B taldeko
futbolariak Gipuzkoako
finalean /8

Hernaniko Udala



Hernani-Gipuzkoa

Aurtengo udan Saharako haurrik ez Hernanin?

Famili hartzaile bila gabiltza. Animatu!

INFORMAZIOA
ETA
IZEN EMATEA

Udal lankidetzaren arloa
943-337017 - 943-336802 - marijo-m@hernani.net
Epea: maiatzak 30

OINDI



taberna

**NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509**

TRIPA BETE NAHI?

**PINTXOAK, RAZIOAK,
ENTSALADAK,
PLATER KONBINATUAK**

ZATOZ DASTATZERA!

TRIPONTZI TABERNA
EGUNERO MENUAK

Kardaberaz, 11 tf: 943555724



8,50

San Joan jaietako egitaraua prest

Astearteko Gobernu batzarrean onartu zen San Joanetako egitaraua. Bestalde, kultur jardueri diru laguntza emateko araudia ez zen aurrera atera Kultura batzordean.

GOBERNU batzarra izan zen asteartean eta beste hainbat punturen artean San Joanetako egitaraua eta aurrekontua onartu ziren, 136.970 euro. Horrez gain, ekainaren 14an egingo den San Joanak iragartzeko kontzertuaren egitaraua eta aurrekontua ere onartu ziren. San Joanetako eta Preludioko egitarauam www.hernani.net web orrian aurki daitezke, nahiz San Joanetako egitarauaren kasuan aldaketa txiki batzuk egitea falta.

Beste hainbat puntu

Gobernu batzarrean Telleri-gainen, etxe gorrien eta hile-riaren artean, etxeak eta garajeak egiteko baimen eskari-ari baiezkua eman zitzaion. Buruntzaldeko airearen kalitatea neurtzeko hitzarmena ere onartu zen, Eusko Jaurlaritzak, EHUKo Kimika Fakultatea eta Hernani, Andoain, Lasarte eta Astigarragako

Udalen artean. Asmoa da beste dispositibo bat jartzea airearen kalitatea neurtzeko.

Garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetzak eta sentsibilizazio programak garatzeko diru laguntzen oinarriak ere onartu ziren. Herrialdetik gutxira argitaratuko dira boletinean eta hortik aurrera proposamenak aurkeztu ahal izango dira.

Ura, zaborra eta estolde-riaren tasak ordaintzeko diru laguntzak ematea ere onartu zuen Gobernu Batzarra. Laguntzak emateko jendearen diru sarrerak hartuko dira kontuan eta ekainaren 2tik abuztuaren 1a bitartean egin behar dira eskariak erregistratu. San Markos Mankomunitateari egin beharreko diru ekarpena ere onartu zen, 2007ko kopuru bera, hain zuzen ere.

Kultur programentzako diru laguntzek onarpenik ez


Bestalde, Hezkuntza, Kultura eta Euskara batzordea izan zen asteartean. Bertan kultur programa eta jardueretarako diru laguntzak

emateko oinarriak aztertu ziren. Gobernu taldeak oinarri berriak egiteko prozesua hasi zuela eta, talde ezberdinen ekarpenak jaso ondoren, proposamen bat osatu zuen. Proposamen hau ez zen batzordean aurrera atera, ez baitzuen oposizio alderdien babesik jaso. Alderdi hauek beren ekarpenak egin nahi dituzte.

San Joanetako kartela

San Joan jaietako kartel lehiaketako

irabazlea ere erabakita dago, Naiara Salamanca Barrigaren lana izan da aurtengo aukeratua. Plaza eta San Joan sua agertzen dira. ■



San Joanetako kartela.

Txinaren makilapean

ASTEARTEAN Tibeteko egoerari buruzko dokumental bat ikusteko aukera izan zen Biterin, Atisha elkartearen eskutik. Umetan Tibetetik alde egindako lagun batek egindako dokumentala da, bueltan Tibetera sartu eta ezkutuko kamara batekin imaginak hartuta. Dokumentala gazteleraz eman duten lehen aldian izan da eta hango egoeraren gogorra ikusi zuten Biterira inguratu zirenek. Txinak polizia eta soldadu ugari bidaliak ditu Tibetera «hogei biztanleko militar bat» eta errepresioa izugarria da, dokumentalean ikusi litekeenez. Txinako gobernuak egiten dituen gehiegikeriak salatu, bere eskubideak aldarrikatu edo Tibetetik independentziaren alde egiten duen edonork ondorio jakinikoa du: tortura eta kartzela, eta zenbait kasutan heriotza. Nomadak herri fantasmatan miserian egotera kondenatzen dituzte, zenbait emakume antzutu, esplotaziopean lan egin arazi... baina ezer gutxi iristen da gurera, horrelako jardunaldietan salbu. ■

Jasota Bezala

●Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ● Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ● Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ● Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Karbonera, etxe okupatu bat baino gehiago

Titular honen atzean izkututzen dira, ideal jakin batzuk, kontzientzia bat, bizitzeko modu bat, gizarte aldaketa kolektiboa, autogestionatua, asanblearioa eta herrian integratutakoa. Beste kolektiboei irekia dago mota guztietako ekintzak eginda, eta elkarlanean aritzen da maila ezberdinetan, maila sozial eta kulturean: hala nola, hitzaldiak, debateak, dokumental proiektuak, musika eta poesia emanaldiak antolatuta, baita elkarri babesa emanda ere. Mota guztietako ekintzak antolatzen ditu, elkartzunean eta herriarentzat, aldarrikapen eta borroka ezberdinei babesa ematen die, esate baterako gaur egun marxan dagoen AHTaren kontrako kanpaina, beste hainbat gai sozial, politiko eta sindikal. Espazio kolektiboa da, alternatibo eta soziala, eta gaur egun sistema kapitalistak inposatzen digun eredu kontsumista eta indibidualistarekiko independentea, hernaniar eta euskaldunok elkarri aurka egitea bilatzen duen ereduarekiko independentea, Euskal Herriko markoaren barruan. Eskerrik asko! eta osasuna!

Juan Sanchez Bolet
(*Erredakzioan euskeratua)

❖ CHILLIDA LEKU

Erakusketa berria inauguratua

Chillida Lekun materializazioari buruzko erakusketa inauguratu zen atzo, aldi bateko. Erakusketa Inasmet-Tecnaliak gai honen bueltan antolatutako jardunaldien barruan kokatzen da. Bestalde, lehengo asteburuan egitekoa zen pintura lehiaketa, etzira atzeratu zuten, eguraldi txarragatik. ■

❖ ATE JOKA

Batzarra gaur, Gaztetxean

Okupazioari buruzko batzarra izango da gaur Kontrakantxa Gaztetxean, Ate Jokak deituta, arratsaldeko 20:00etan. ■

❖ OLIO BILKETA

Olio bilketa gaur

Gaur, hilabeteko azkeneko osteguna izaki, olio bilketa izango da Urbieta kalean eta Ereñotzun. Ereñotzun arratsaldeko 16:00etatik 16:20etara, eta Urbieta kalean 16:30etatik 19:30etara. ■

❖ AHTREN AURKAKO ASTEA

Parodia eta kontzentrazioa gaur

Abiadura Haundiko Trenaren kontrako astea antolatu du Gazte Asanbladak. Gaur bi deialdi daude: arratsaldeko 18:00etan, kale

antzerkia izango da herrian; eta arratsaldeko 19:30etan, kontzentrazioa deitu dute, apeaderoan. ■

❖ OSIÑAGAKO JAIK

Osiñagako jaien preludea, larunbateko mus txapelketa

Osiñagako jaiak izango dira ekainaren 7 eta 8an. Auzoko giroa berotzen hasteko larunbaterako mus txapelketa antolatu dute. Izena bertan eman behar da, 10 euro ordainduta. Sari ederrak izango dira irabazleentzat: aurrenekoentzat, bi urdaiazpiko eta trofeoak; bigarrenak, arku-mea eta trofeoak; hirugarren eta laugarren postuan geratzen diren bikoteek txuletak eramango dituzte. Etzi, larunbata, arratsaldeko 16:00etan hasita, Arriatsun. ■

❖ ZIKLOTURISTAK

Hitzaldia bihar

Bizikletan egiten diren ohiko zauri eta lesioei buruz hitz egingo du bihar Xabier Sansinane medikuntzan lizentziatuak eta azalduko du hauek nola tratatu. Hitzaldia Zikuñako Ama zikloturista taldeak antolatu du. Bihar arratsaldeko 20:00etan, Biterin. ■

❖ GOIZUETA

Iskibi kanpina bihar irekiko da

Goizuetako Iskibi kanpina irekiko da

bihar. Jakinarazi dutenez aurten ere ekintza ezberdinak antolatuko dituzte kanpina girotzeko. ■

❖ ZABALETAKO JAIK

Gaur ere umeen festa

Lasarteko Zabaleta auzoko jaietan 18:00etatik aurrera haur jolasak izango dira; ondoren antzerkia, eta bukatzeko, japoniar bonbak. Bihar, arratsaldeko 17:30etan, haurren merienda izango da eta 18:00etan antzerkia; 19:00etan, haurrentzat opari zozketa, eta segidan auzoko trikitijoleak aterako dira; 20:00etan, Lasarteko batukadak girotu-ko du auzoa eta ordu berean, Teresa sorginaren jaitsiera egingo dute; gaueko 22:30etan, *Alboka* eta *Xumela* abesbatzen emanaldia izango da; 23:30etan, dantza garaikide saioa; eta 24:00etan, dantzaldia *Laburu* taldearekin. ■

❖ AÑARBEO URAK

Aqualia enpresako langileek greba gaur


Aqualia Gestion Integral del Agua -ko langileek greba egingo dute gaur. Aqualia Añarbeko Urak enpresako azpiegituren mantenimenduaz arduratzen da. Greba egingo dute, besteak beste, salatzeko lan bera egiten duten langileek soldata eta konbenio ezberdinak dituztela. ■

IKASLEEN TXOKOA - Hernani Institutua



INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK, ENERGIA LORTZEKO BIDE GARBI BAT / II - III

Aitor Argiñarena



AIRE BIDEZ DABILEN KOTXEA / IV

Beñat Zubiarrain



Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

HERNANI INSTITUTUA



Instalazio Fotovoltaikoak, energia lortzeko bide garbi bat

Energia iturrien
baliabideak agortzen
ari diren garai hauetan,
ezinbestekoa dugu
agortezinak diren
iturrietan eskua
sartzea, hain zuzen
ere, energia
berriztagarrietan.

HAUEN artean aurkitzen da eguzkia, egunero, goizetik hasi eta ilundu arte energia askatzen duena, irradiazio izpien bitartez. Eguzkiak askatzen duen energia izugarritzakoa da eta hau gure pro-

betxurako erabiltzeko teknikak badaude.

Aski ezagunak dira plaka solarak, eguzki energia xurgatzen dutenak. Hauek bi motakoak daude, termikoak, ura berotzeko erabiltzen direnak; edota fotovoltaikoak, elektrizitatea sortzen dutenak.

Bi hauetan aipagarriena bigarren aukera da, hain beharrezkoa dugun elektrizitatea modu garbian, beste zenbait iturrik suposatzen duten kontaminazio gabe, eta beraz, ingurugiroa errespetatuz lortzeko aukera ematen diguna.

Leku aislatuetarako soluzio egokia da

Gero eta gehiago ikusten dira errepide bazterrean seinaleak plaka fotovoltaiko batekin hornitzen direnak, izan ere, leku aislatuetan

daude eta soluzio egokia da plaka solarak erabiltzea, iraupen handia baitute eta beraien muntaia sinplea baita.

Nahiz eta ekologiarri begira oso polita izan, beste behin ere ekonomiak du indarra gure erabaketan. Herri barruan dagoen etxebizitza arrunt batean instalazio fotovoltaikoa egiteak ez du zentzu handirik, errazagoa eta merkeagoa baita ondoko bloketik Iberdrolaren kableari konektatu eta bertatik hornitzea gure beharrak, eta alde batera uzten dugu instalazio fotovoltaikoa egiteko aukerak suposatzen duen inbertsioa, bakoitzak izango duen kontsumo elektrikoa-ren arabera aldatuko litzatekeena (18.000 € gutxi gora behera).


Baina demagun eszenatokia aldatu egiten dela, eta argi indarra nahi dugun etxebizitza hori men-

dian dagoen borda zahar edo etxe bat dela. Kasu honetan, argi indarra ematen digun Iberdrolaren kablea urruti dago eta hortaz, gertuen aurkitzen den puntutik gure borda edo etxebizitza ekarri behar da. Kostu ekonomiko hau ordaintzea guri dagokigu eta nahiz eta kablearen distantziaren

Eguzki plakak bi modutakoak daude: termikoak, ura berotzeko balio dutenak; eta fotovoltaikoak, elektrizitatea sortzen dutenak

Plaka fotovoltaikoak elektrizitatea modu garbian sortzen dute, beste zenbait iturrik suposatzen duen kontaminaziorik gabe

ikasleen txokoa



Leku urrunetan dauden eraikinetarako aukera ona eta ekonomikoa izan liteke plaka fotovoltaikoa.

arabera balioa aldatu, oso garestia da.

Kasu honetan aukera egokia izango litzateke instalazio fotovoltaikoa egitea, edota gutxienek aukera hori kontuan harturik, kalkuluak egin eta dauden aukera eta subentzioez informatzea. Izan ere, energia mota honi bultzada emateko subentzio handiak daude instituzio publikoen aldetik.

Lau elementu: plakak, bateriak, tentsio inbertsorea, eta karga erreguladorea

Lehenik eta behin gure borda edo etxebizitzan kontsumituko genukeen potentzia kalkulatu beharko genuke, beharko dugun plaka solarren kopurua zehazteko. Behin plaka kopurua jakinda, bateria batzuk ere beharko dira, gauzez edo eguraldi txarra egiten duenean, eguzkirik ez dagoenean alegia, bateria hauetatik har dezagun elektrizitatea.

Etxebizitza baterako instalazio fotovoltaikoa egiteak

inbertsioa egitea eskatzen du:

gutxi gorabehera

18.000 €-ko inbertsioa

Instalazio fotovoltaiko batean behar ditugun elementuak lau dira: plaka solarrak, bateriak, inbertsorea eta karga erreguladorea

Etorkizunean egiten diren etxebizitzek energia iturri modura eguzkia erabili beharko dute derrigorrez, kontaminazio gabeko energia baita

Plaka eta bateriez gain, beharko dugun beste elementua tentsio inbertsorea da. Plakak korrante zuzena (24V) ematen digute eta gure etxeko hargailuek korrante alferoa (230V) behar dutenez funtzionamendu egokirako, inbertsoreaz baliatuko gara aldaketa hau egiteko. Instalazio fotovoltaiko bateko beste elementu garrantzitsua karga erreguladorea da. Erregulazio eta kontrolko elementu honek, baterien karga eta deskarga erregulatzen ditu, hauen funtzionamendua eta iraupena behar bezalakoak izan daitezen.

Beraz, instalazio fotovoltaiko batean behar ditugun elementuak lau dira: plaka solarrak, bateriak, inbertsorea eta karga erreguladorea. Hauen kalkulua eta aurrekontua egiten duten enpresa profesionalak badaude, gero eta indar gehiago hartzen ari direnak.


Etorkizunean indar haundia

Bukatzeko, esan behar, datozen urte hauetan energia fotovoltaikoak indar haundia hartuko duela gure gizartean. Esaterako, hemendik urte batzuetara egiten diren etxebizitza berri guztiek energia iturri modura eguzkia izan beharko dute

derrigorrez. Izan ere, beste zenbait iturrik suposatzen duten kontaminazio gabe eta beraz, ingurugiroa errespetatuz, elektrizitatea lortzeko aukera ematen digu.

AITOR ARGINARENA
Hernani Institutua

Etxe batean dauden aukerak energia berriztagarri ezberdinak jartzeko



31

zenbakia

ikasleen txokoa

Aire bidez dabilen kotxea

"CAT" Ibilgailuak bi energiari (aire konprimatua eta erregaia) edo energia bakarrari (aire konprimatua) esker funtzionatzen duten ibilgailuak dira. Horrela, hiriguneetan ez lukete kutsadurarik sortuko, erregaia ez dutelako erabiliko gune hauetan, eta hauetatik kanpo berriaz, askoz ere gutxiago, gaur egungo automobilekin alderatuz gero.

MOTORE hauen kostu ekonomikoa askoz ere baxuagoa da, eta zer esanik ez ingurugiroan izango duen eragina; kalkuluen arabera ibilgailu batek 2.000 km inguru egin ditzake depositoa berriaz betetzerako.

Bi motor, konbinatuta
Ibilgailu hauek, hiri barnean, abiadura 50 km/h baino baxuagoa denean, automatikoki aire konprimatua bakarrik erabiliko dute, eta abiadura hori gainditzean, airea eta erregaia erabiltzen dituzten bi motoreak martxan jarriko dira. Gainera, distantzia handiak egiteko ere balioko dute kotxe hauek, 160 km/h abiadura hartzeko gai direlako eta 1,5


litro erreko dutelako 100 kilometroan.

Airearekin bakarrik 200 km
Autoa airearekin bakarrik 200 km ibil daiteke, gaur egun, ezin da gasolindegietan bete, baina merkatua prestatzean, 1,5 eurotan ordainduko da airea kargatzea, honek esan nahi du 100 km egiteko 0,75 euro ordainduko dugula. Gainera nahiz eta gasolindegitik ez pasa, autoak konpresore txiki bat dakar, hau etxean sare elektrikora konektatuz gero, autoa kargatua egongo da 4 edo 5 ordutan.

Olio aldaketa 50.000 km-tik
Beste datu batzuk ere oso interesgarriak dira, olio alda-



Konpresore
mota



keta 50.000 km-tik behin egin beharko da erregai gutxi behar duelako. Autoak botatzen duen airea ez da kutsagarria izango eta eskape hoditik 0 eta -15°C artean irtengo denez, aire egokiturako ez da gas kutsakorrik erabili behar, eta ez da potentziarik galduko motorrean.

Istripu bat izatekotan, aire konprimatuzko depositoez ez lukete arriskurik sortuko, gasa eramateko metalezko depositoez dituztenez, pitzadurak sortuko litrateke eta handik airea aterako litzateke depositoa hustu arte.

Kotxe arinak


Autoko txasisa tubularra izango da, honek erresistentzia handiagotu eta pisua jaitea

eragingo du, sistema elektrikoak ere 22 kg gutxiago pisatuko ditu, asmakizun berritzaile bati esker; innobazio guzti hauek kontuan hartuta, edozein kotxek pisatzen dituen 2.000 kg-tik, auto hauen 500 kg-tara pasatzen da, datu garrantzitsua, inondik inora.

Prezio eskurazina, oraindik
Bestalde prezioak ez daude eskura oraindik, baina kalean ikusten ditugun autoen antzekoa izango dela ziurtatzen dute.

Kotxea ikusi edo erosi nahi baduzu www.motordeaire.com web orrian sartu.

BEÑAT ZUBIARRAIN
Hernani Institutua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

IES Hernani BHI
A. Iturriaga - K. Labaka

A. ITURRIAGA Santa Barbara auzoa z/g - 20120 HERNANI - Tel.: 943 551188 FAXA: 943 552271
K. LABAKA Karmelo Labaka 7 - 0120 HERNANI - Tel.: 943 551958 FAXA: 943 330550
e-mail: institutua@hernanibhi.com www.hernanibhi.com

ELEKTRIZITATEA

Ekipo eta instalazio Elektroteknikoak (Erdi Maila)
Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)

MEKANIKA

Mekanizazioa (Erdi Maila)
Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa)
(Goi Maila)

AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 2tik 13ra



Esne Beltza taldeak lehen diskoa atera berri du, *Made in Euskal Herria*. Hamabost kanta osatzen dute disko berria, eta ia beste hainbeste lagunek taldea. Taldearen muina hernaniarra da: Xabier Solano, Jon Mari Beasain eta Pello Gorrotxategi dira musikarietako batzuk, Joanbau Larburu *Flautis* eta Aitor Saizar dira teknikariak eta Jon Garmendia *Txuriak* egin ditu letrarik gehienak. Xabier Solano eta Pello Gorrotxategirekin hitz egin du Kronikak.

«Disko gehienak oso serioak izaten dira, gurea dantzarako da»

MUSIKA beltza txuriek egin, horixe da Esne Beltza musika taldea Fermin Muguruzaren hitzetan. Horrez gain, etxez etxe banatzen den esnari ere esne beltza esaten zaio eta Hitlerrek ere esne beltza deitzen ziren bere gustokoak eta «puruak» ez zirenei. Ideia guzti horiek bilduta jarri zioten taldeari Esne Beltza izena, orain urtebete inguru eta lehen diskoa kaleratu berri dute, *Made in Euskal Herria*. Baina, *Made in Hernanitik* ere badu talde honek: Xabier Solano da proiektuaren sortzaile nagusia; Pello Gorrotxategi eta Jon Mari Beasain musikarietako bi dira; Aitor Saizar eta Joanbau Larburu *Flautis* dira teknikariak; letrarik gehienak Jon Garmendia *Txuriak* egin ditu eta Maialen Lujanbiok ere bai bat...

Guztira, 9 musikari igo ohi dira oholtza gainera, proiektu edo talde desberdinetan ibiliak guztiak: Etzakit, Izotz, Joxe Ripiau, Su ta Gar, Fermin Muguruza... bakoitzak berea aportatu du eta horrek izaera eta doinu berezia eman dio taldeari «mestizaje» erabatekoa. Eta diskoan ere «nahasketa haundia nabaritzen da» Solanok azpimarratu duenez, eta lanik haundiena «guztiak ardatz berdinean sartzen» egin dute, Gorrotxategiren hitzetan.

Disko «freskoa»

Esne Beltza taldeak festa giroa jartzea izaten du helburu bere kontzertuetan, eta diskoak ere izaera hori du, «dantzarako da». «Disko gehienak oso serioak dira, baina gurea ez» azpimarratu dute bi taldekideek. Izan ere, zuzenekoaren filosofia beretik egin dute diskoa eta zuzenean jendea saltoka jartzen badakite. Orain arte ibili diren taldeetatik dakarkite eskarmentu hori eta orain arteko kontzertuetan jendea mugitzea beti lortu dute «nahiz eta batzuetan egokitu jendea serioago egotea ere,



Esne Beltza taldeko kideetako batzuk, disko aurkezpenean, ostiralean Donostian.

baina azkenerako lortzen dugu mugitu araztea».

Kanta gehienak Xabier Solanok egin ditu, eta lokalera eramane eta moldatzen dituzte denen artean. Etxean gitarra edo soinuarekin edo kotxean dijoala egiten du kanten oinarria, eta talde guztiak ematen dio gero forma. «Hasieran asko kostatzen zitzaidan,

baina orain kanta bat egitea erraza da niretzat» aitortu du musikari ereñotzuarrak. Letrak berriz, Jon Garmendia *Txuria* bertsolariak egin ditu gehienak eta Maialen Lujanbio eta Jon Maia bertsolariak ere egin dute letra bana. Gaiak berriz, normalean ateratzen direnak dira Esne Beltzako kideen hitzetan: «betiko ara-

zoak, maitasuna... gai politikoak... baina disko honetan gai politikoa lantzen dutenak ez dira hainbeste».

Kolaboratzaile ugari

Taldeko bederatzi kideez gain, bertako nahiz kanpoko kolaboratzaile ugari hartu dute parte diskoan. Fermin Muguruzarekin jiran dabilela

kontaktu asko egiteko aukera izan du Solanok eta Mexiko, Argelia edo Italiako musikariek hartu dute parte, eta bertako Sorkun, Fermin Muguruza eta abar luze batek. Horrek diskoa asko jutzen du, Solano beraren hitzetan. Gaztelupeko Hotsak disketxearekin atera dute disko berria, eta Hernanin eskuratu nahi duenak salgai du Elkar-dendan, lehengo Leten.

Kontzertuak bi bloketan egiten

ditugu: hasiera serioagoa eta bukaera beroagoa. Aurtengo kontzertu guztietan jendea mugitzea lortu dugu

Ekaina, bete bete

Diskoa atera berritan aurkezpene kontzertuak izaten dira normalean, baina Esne Beltzak negu alderako utziko du lantegi hori. Orain herriz herriko kontzertuak emango dituzte eta ekaina bete bete datorkie gainera. Bila asko ibili gabe etorri zaizkie kontzertu asko eta oraindik ere gehiago izango dituzte. Hernanin entzun nahi dituenak San Antoniotan izango du lehenengo aukera, Ereñotzun. Iaz ere «kontzertu sorpresa» eman zuten Ereñotzuko festetan, baina aurtun izango da kontzertu ofiziala. Horrez gain, Portuko festetan eta Zikuñagako festetan ere joko dute, Esne Beltzaren giroaz gozatu gabe hernaniarrik geratu ez dadin.

Horrez gain, Euskal Herriko herri askotan dituzte kontzertuak eta Euskal Herritik kanpora ere bai, hemengo taldeak beso zabalik hartzen dituzten Katalunia aldean. Aurrera, kanpora ateratzeko asmoa badute Alemania, Italia... II

☎ **TELEFONAK** 1 **Taxiak**: 943 550093 1 **Udaltzaingoa**: 943 248900 1 **DYA**: 943 464622 **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 1 **Anbulatorioa**: 943 006666 1 **Jokalari anonimoak**: 943 331103 1 **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
✚ **FARMAZIAK** 1 **Egumez**: **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 1 **Gauetz**: **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA	GAUR Ez da aldaketa haundirik izango, eguraldi ezegonkorrekin jarraituko dugu. Ostarteak eta zaparradak izango dira. Tenperaturak antzekoak.	BIHAR Giro nahasiarekin jarraituko dugu. Goizean lainoak eta ostarteak izango dira eta arratsaldean zaparradak. Tenperaturak antzekoak.
------------------	--	---

◆ IGERIKETA



Igeriketan hasteko aukera

HERNANIKO Kirol Elkarteko igeriketa saila hasi da dagoeneko datorren denboraldia prestatzen. Jakinarazi dutenez, datorren denboraldian igeriketa taldean hasi nahi dutenek froga txiki bat egin behar dute. Froga ekainaren 2tik ekainaren 13ra bitartean egin ahal izango da, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Froga egiteko egun eta ordu horietan joan behar da kiroldegira eta Borja edo Jon Anderren galdera egin. ||

◆ FUTBOLA



Elizatxo B taldeko futbolariak Gipuzkoako finalera iritsi dira.

Elizatxo B Gipuzkoako azpitxapelduna

ATZOKO Kronikan aipatzen zen Hernaniko ikastetxe ezberdinetako neskak fin aritu direla aurtengo eskola kiroleko txapelketan. Atzokoan palan, alebin mailan Gipuzkoako txapeldun

izandako Urumea ikastetxeko taldea eta alebin mailan txapeldunorde izandako Langile A aipatu genituen. Gaurkoan finalera iritsitako hirugarren taldearen txanda da, alebin mailan, futbole

Gipuzkoako txapeldunorde izan den Elizatxo B-rena. Kontrario Jakintza taldea izan zuten. Galdu arren, ez da meritu makala finaleraino iristea.

Zorionak denei! ||

❖ MOLOTOFF IRRATIA (FM 91.8)

Hernani Konektion saioa gaur

Hernani Konektion saioa izango da gaur Molotoff irratan. Gaurkoan honako gai hauek jorratuko dituzte: Kulturola proiektua, AHTaren aurkako ekimenak, osteguneko plenoa eta udal informazioa eta agenda. Gaur gaueko 21:00etatik 22:00etara. Errepikapena, bihar 16:00etatik 17:00etara. ||

❖ MUS TXAPELKETAK

Gaurko partidak

Mus txapelketa ezberdinetan partidak jokatu dira gaur. **Aralar tabernan** honako hauek jokatu dira: Antton-Joxe Luis/Arkaitz-Aitzol; Julio-Mantxa/Txoni-Txutxi; Joseba-Simon/Karlos-Javi; Txomin-Javi/Manu-Joxe Leon. **Xalaparta elkartean** beste partida hauek jokatu dira: Iñaut-Popo/Iñaki-Martin; Julio Rubio-Julio/Isidro-Montoya; Julio-Vicente/Martin-Goñi; eta Ander-Txapu/Salaberria-Dani. ||

Mus txapelketa bihar Garin tabernan

Bihar ostirala mus txapelketa izango da Garin tabernan, 22:30etatik aurrera. Bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu eta saria arkume eder bat izango da. ||

❖ AURKITUTAKOAK

Portun agertu ziren kotxeko giltzen jabeak eskerrak eman nahi ditu

Asteartean Portun kotxeko giltza batzuk aurkitu zituen herritar batek; giltzak Udaltzaingoa utzi eta Kronikan abisua jarri zuen. Giltzaren jabeak pertsona horri eskerrak eman nahi izan dizkio. ||

◆ ERREMONTA

Jaialdia gaur Galarretan

Osteguneroko erremonte jaialdia izango da gaur Galarretan. Estelarrean, jaialdiko bigarrenen, Ezkurra-Etxabek jokatu dute Zeberio II-Lizasoren kontra. Gainerako partidua honakoak izango dira: Larrea-Gaztelu/Martinez II-Aizpurua II; Juaristi-Eizagirre-/Altuna I-Iriarte; Matxin IV-Agirrezabala/Etxeberria IV-Urko. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Pixua salgai Hernanin. 3gela, egongela, sukaldea eta komuna. Kalefazio zentrala eta igogailuarekin. Deitu: 620 82 35 15.

Elgoibarko Gaztelekuarekin udaleku itxietara (Mendigoria, uztailak 9tik 16ra) joateko hezitzailea behar da (kontratua) Tfnoa: 943 74 32 28 (Argitze) edo gaztelekua@elgoibar.org

Sukalderako laguntzailea behar dugu Igeldoko sagardotegi batean lan egiteko, asteburuetan. Interesatuak deitu: 635 746 559

Pixua salgai Floridan (La Cumbren). 60 m2 ditu, 2 logela, egongela, sukaldea, komuna, 60 m2ko garbiera eta trasteroa. Deitu: 627 501 957

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P- 1 B).

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta Kuperros. Bibrazio bidezko terapiarekin egindako gorputz tratamenduak eta "vacumterapia". Haserako eskaintza. Froga dohainik. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informatiboa. Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologikoa eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)